

Abizenaren gerizpean

Berrogeita hamar urte igaro dira Carmen Baroja Nessi hil zela

Izan da emakume artistarik Barojatarrean: Carmen Baroja Nessi, idazle eta urregilea. Baina emakumea zen, eta Baroja abizenaren itzalpean igaro zuen bizitza. Dena den, laga zituen arrastoak bere sasoiko kultur mugimenduan eta borroka feministan.

Ane Sarasketa • Donostia

Dario, Ricardo eta Pio Baroja anaien ostean jaio zen Carmen, Iruñean, 1883an. Han eta hemen bizi izan zen, aita, Serafin Baroja, sarri aldatzen baitzen lantokiz, eta, beraz, baita familia ere bizitokiz: Iruñea, Zestoa, Donostia, Madril eta Bera, besteak beste. Madrilen igaro zituen urterik gehienak, eta bertan zendu zen, 67 urterekin. Gerizpean igaro zituen bizitzako urte asko. Baita zendu ostekoak ere. Izan ere, ezer gutxi jakin da Barojatar horren lan eta bizitzaren inguruan, bere gogoetak kaleratu arte.

Txiki-txikitatik artearen munduarekiko interes izugarria erakutsi zuen Carmen Barojak, bere anaiek legez; baina ez zuen haiek izan zuten aukerarik izan irrika hura lantzeko. Emakume jaio zen, eta, garai hartako andre gehien antzera, oztopoa besterik ez zuen aurkitu bere bidean.

Nerabezaroa Euskal Herrian igaro zuen, baina ondoren Madrilen bizi izan zen luzaro. Tartean, Espainiako Gerra Zibilak Beran harrapatu zituen Barojatar gehienak, Itzea baserrian. Sasoi gogorrak izan ziren familiarentzat, eta Pio Caro Barojak, Carmenen semeak, guda garai haiek ekarri ditu gogora bere amaz mintzatzerakoan. «Beran ginen orduan. Mugimendu feministetan borrokatutako

emakumea izan zen nire ama; intelektuala; jantzia. Gero, gudak behartu egin zuen soroan lan egitera. Osaba Pio Franzian zegoen, ihes egin da, eta aita Madril harrapatu zuen gudak. Amak atera gintuen aurrera, eta esku fin haiek gogorrak bilakatu ziren», dio tristura kutsu batekin.

Nahi eta ezin

Nahi eta ezin batean hazi zen Carmen Baroja. Emakumearen independentzia desiratzen zuen, sutsuki. Baina, aitzitik, «mende hasierako Espainiak» agintzen zuen eginkizuna txukun betetzen zuela azaltzen du bere gogoetetan. Familiak ez zion sekula lagundu bere ibilbide profesionala garatzen. Hala ere, anaia Pío eta Ricardok bezala, bere bide artistikoa egitea erabaki zuen, urregintzaren alorrean. Ikasteari ekin zion, Parisen ere izan zen, baina ez zuen sekula lortu hartatik bizitzerik. Dena den, hainbat lan saritu zizkion, eta zenbait liburu ere idatzi zituen: *Elencaje en España*, *Las joyas españolas* (argitaratu gabea), *Martinito*



«Garai hau izan zen nire bizitzako alaiena, eta gustura gogoratzen ditut orduko kontuak», idatzi zuen Carmen Barojak bere izkribuetan. Sasoi hartako borroka feministaren eredu izan zen Madrilgo Lyceum Club elkarte. 1926. urtean osatu zuten elkarte Carmen Barojak eta beste zenbait emakume; Maria de Maeztu eta Victoria Kent tartean. Espainiako Gerra Zibila amaitu ostean itxi zuten elkarte.

Lyceum Club

Honela zioen kartelak: «Madrilgo Lyceum Cluba: itxita, nazioko arrazoi politikoak direla eta».

Europako hiriburu gehienetan zeuden halako kultur elkarteak. Bazkide guztiak emakumeak ziren, eta hitzaldi, erakusketa, musika saio eta beste hainbat kultur ekitaldi antolatzen zituzten. Arte saila kudeatu zuen Carmen Barojak. Hitzaldiak ere antolatu zituen, baina gutxitan gelditzen zen haiek entzutea: «Hizlariak aulki eder batean esertzen nituen. Gero, etxera alde egiten nuen. Senarra, sutu egiten zen afalordurako ez banengoen etxean. Beraz, ez nituen esaten zirenak entzuten», kontatzen du tristuraz. Nahi eta ezina, berriro. ■

el de la casa grande (haur literatura) eta kutunen katalogo bat. Tartean, Pio Baroja anaiaren hainbat obra moldatu zituen zinemarko, eta zutabegile modura ere aritu zen egunkari eta aldizkari askotan. Baina batez ere musikak eta gauza bitxiak bereganatu zuten emakume honen grina.

«Uste dut, sen izugarria eta sentsuala izan dudala uki daitezkeen gauzekiko. Ikustearekin soilik ez dut ezer egiten», dio bere gogoetetan.

Utzitako literatura ere ez da nolanhikoa. Pio Caro Baroja semeak honela deskribatu du bere amaren idazkera: «Poesia erraza da nire amarena. Gogoetak, kezkek, maite zituen kideak, eta etxeak, paisaiak, elementuak erabili ditu bere gaietan. Era klasikoan idatzitako literatura da berea. Esku leunez idatzitakoa, baina tinko betiere. Eta irakurritako makina bat liburu eta estiloren ezaugarriak jasotzen ditu bere idazkerak».


Borroka feminista

Amparo Hurtado idazle eta filologoak kaleratu ditu Carmen Baroja Nessiren gogoetak. Honela azaldu du idazleak Carmen Barojak bizi izandako barne borroka: «Bere

anaiek bezala, ogibide bat izan nahi zuen, independentzia lortzeko, eta berak zioen moduan, senargaiaren ehiza lotsagabe hartan aritzeko beharrik ez izateko. Carmen Barojaren gogoetek XX. mendearen hasierako burgesia ilustratuak zuen bizimodua azaltzen dute».

Azkenean, bera ere ezkondu zen, Rafael Caro Raggiorekin (Caro Raggio argitaletxearen sortzailearekin), eta lau seme-alaba izan zituen Julio, Ricardo, Carmen eta Pio Caro Baroja. Bere tristuren arteko argia izan ziren seme-alabak, horiek eta 1926. urtean sortu zuten Madrilgo emakumeen Lyceum Club elkarte.

Teoriak eta praktikak talka egiten zuten Carmen Barojarengan, eta behin baino gehiagotan ausardia falta izan zuela kritikatzeko dio bere buruari: «Neure kabuz aurrera egiteko baliabideak eduki izan banitu, seme-alabak hartu eta alde egingo nuen. Baina ezin izan nuen. Ez nuen aukerarik izan, eta, bestalde, ezin nuen dirurik irabazi, prestakuntza falta nuelako. Adorerik ere ez nuen izan, ez ezkongabea nintzenez ez ezkondukoan. Segur aski, hobe izan da horrela», azaltzen du bere gogoetetan, soseguz. Beste garai batean jaio izan balitz, akaso emakume izateak ez zion hainbesteko itzalik egingo.



Carmen Baroja, Ricardo anaiak pintatuta (*Hilandera*, 1945)

Amparo Hurtado •

«Mende hasierako egoera zapalduaren lekuko zuzenak dira Carmen Barojaren gogoetak»